

OHAR METODOLOGIKOAK. ESNE BEHI SEKTOREAREN JARRAIPENA

1. DEFINIZIOAK

- **EROSITAKO ELIKADURA KOSTUA (€/1000 Litro)**
Aztertutako epealdietan, ustiategi batetan 1000 litroko, erositako elikadura gastuari dagokio.
- **JASOTAKO SALNEURRIA (€/1000 Litro)**
Eskuratutakoaren (euroak) eta zentralera entregatutakoaren (litroak) kopuruaren arteko zatiketarik ondorioztatutako ekoizleak jasotako esnearen salneurriari dagokio, 1000 litroetan adierazita.
- **SALNEURRI KRITIKOA (€/1000 Litro)**
Saldutako esnearengatik, ustiategiko beste sarrerak kontutan hartuta (ganadu salmenta, dirulaguntzak, etab.), kostu guztiak, aukerazkoak barne (eskulana, kapitala eta lurrak), estaltzeko jaso behar den salneurria. Eskulanaren kalkulurako nekazaritzako erreferentzizko errenta erabili da.

2. INFORMAZIO ITURRIA

Informazioa, Euskal Autonomi Erkidegoko, nekazaritza ustiategiei aholkuak emateko erakunde diren ABELUR, ABERE, LORRA eta LURGINTZAn, kudeaketa tekniko ekonomikoko zerbitzuan inskribatutako ustiategietan lortutako datuetatik.

3. LAGINAREN ADIERAZGARRITASUNA

Lagina 152 ustiategik osatzen dute. Hauek 2014 urteko industriara bideratutako entregatzeen %71-a suposatzen dutelarik.

4. LAGINAREN EZAUGARRIAK

Aztertutako eszenatokiek ondorengo irizpideei erantzuten diete:

- **EKOIZPENA:**
 - Behiko 30 litro baino gehiagoko ekoizpena dituztenen taldea (>30)
 - Behiko 30 litro baino gutxiagoko ekoizpena dituztenen taldea(<30)
- **BAZKA AUTONOMIA:**
 - **A TALDEA:** ustiategiak non bazka autonomiak ez duen ekoizpeneko behiek kontsumitutako bazka guztiaren %25-a baino gehiago suposatzen (Gai Lehorrean adierazita)
 - **C TALDEA:** ustiategiak non bazka autonomiak gutxienez ekoizpeneko behiek kontsumitutako bazka guztiaren %90-a suposatzen duen (Gai Lehorrean adierazita)
 - **B TALDEA:** aurreko taldeen artean kokatzen diren gainontzeko ustiategiak